



## Herrikoia eta herritarrena

Igande honetan jokatuko dute 26. Lasarte-Oria Bai! krosa, 10:30etik aurrera; boluntarioak omenduko dituzte / 2-7


TXINTXARRI

 **Ges**  
aseguruak

**26**  **LASARTE-ORIA BAI!!**  
Krosarekin bat!

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Aurrezkiak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak
- ✓ Eta gehiago!



# Krosaren esku, birika eta bihotzak

Lasarte-Oria Bai! krosaren antolatzaileak, Ostadar SKTk, ekitaldi herriko hori urtero-urtero aurrera eramaten laguntzen duten boluntarioak omenduko ditu aurten, 1 dortsal "sinbolikoa" orain arteko 26 aldietako batean edo batzuetan (edota guztietan) lagundu dutenei eskerrak emateko. Kirol elkarte horretako kideen hitzetan, "150 bat lagun" izaten dira urtero lasterketaren esku, birika eta bihotzak.

Argazki artxiboan arakatu du TXINTXARRI-k eta urte ugariako irudiak ekarri artikulu honetara, Lasarte-Oriaren ikurretako bat den krosaren atzean dagoen lan guztiaren lagin bat erakusteko asmoz: partaideen izen emateak jaso eta kudeatu, lasterketa egunean lan informatikoa egin (saillapenak eta informazioaren kudeaketa, duela zenbait urtera arte zapatiletan jartzen ziren txipen bidez egiten zena), fruta moztu eta poltsak prestatu, ibilbidea diseinatu eta antolatu, irteera lerroan txistua jo nahiz dantzatu, krosa aurkeztu, ibilbidea zaindu, Orian parte hartzaileei ura eman, helmugaratzea zaindu, sariak banatu, Korrika Festako gaztetxoak gidatu eta korrika egiteaz bukatzen dutenean elikagaiak eman... eta abar luze bat. Aurten ere zeregin horiek guztiak aurrera eramango dituzte makina bat pertsonak, eta, kirol proba jokatu ez arren, izerdi ederrak bota ere bai. Bejondeizuela denoi!

IZEN EMATEAK KUDEATU



LAN INFORMATIKOA EGIN



FRUTA MOZTU



IBILBIDEA PRESTATU



AURKEZTU, TXISTUA JO EDOTA DANTZATU



IBILBIDEA ZAINTEKO PRESTATU



## Uraitz, s.l.

Igeltseritza Orokorra



LASARTE-ORIA BAI!!  
Krosarekin bat!

- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN. VIPEQ F08 (EMULSIOZ BOTATAKO ARTELAZKIA) ETA S.A.T.E. SISTEMA
- GREMIOEN KOORDINAKETA KOSTU GEHIGARRIRIK GABE
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA DUTXA EXTRALAUARENGATIK EGUN BAKAR BATEAN

## MAITE

ESTETIKA ARETOA



ADI  
KIROLARI!

Fotodepilazioa egiteko unerik egokiena da hau!

Ez galdu aukera eta zatoz prezioak galdetzeraz!

Gure tratamendu eta zerbitzuak opari-txartel moduan oparitu ditzakezu!

Zerbitzu mistoak

Ustina kalea z/g · 943-37 08 45 LASARTE-ORIA

693 05 93 92 / 943-56 66 40 • [uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com) • [www.uraitz.com](http://www.uraitz.com)  
BULEGOA: Hipodromo etorb. 10 behe, 3. LASARTE-ORIA

ORIAN URA BANATU



PARTAIDEAK GIDATU



HELMUGARATZEA ZAINDU



SARIAK BANATU



GAZTETXOAK GIDATU KORRIKA FESTAN



PARTAIDEEI ELIKAGAIAK EMAN




# LUIS CAR

## autobusak

26  LASARTE-ORIA BAI!!  
Krosarekin bat!

- Espainiako eta nazioarteko garraio zerbitzuak
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak
- 15 plazako mikrobusak
- 55 plazako autobusak
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autobusak

Lasarte-Oria  
**Guk Kirola**  
*euskaraz*

LASARTE-ORIA  
 TRATU ON BAT  
 UN BUEN TRATO

LASARTE-ORIA  
 UDALA - AYUNTAMIENTO

Laguntzaileak: DYA, Jalgune, Kukuka, Buruntzazpi, Zubietako Herri Batzarra, Ttakun, Sasoeta-Zumaburu ikastetxea, Landaberri ika

**36. URTEURRENA**  
**Bideo Lagunak** = TIEN 21 =

*Aurreratu zaitzez*  
**BLACK FRIDAY**  
*egunera!*

**TOP21-eko eskaintzarik onenak!**

- Finantziazioa neurira
- Garraio zerbitzua
- Erabilitako gailuen jasotzea
- Aholkularitza espezializaturia
- Preziorik onena

**Etxekotresna elektrikoetan adituak**

**ZERBITZU TEKNIKO PROPIOA**

Donostia etorbidea 2 | Lasarte-Oria | Tel.: 943-37 31 34 | [www.bideolagunak.com](http://www.bideolagunak.com)

**Bideo Lagunak**  
 Lasarteko **KROSS**arekin

Krosa + Roller ibilbidea  
Recorrido Kros + Roller

Ipar martxa ibilbidea  
Recorrido marcha nórdica



Korrikalariak herritarren berotasuna jasotzen dute Kale Nagusian barrena. TXINTXARRI

## Ibilbide aldaketa dute korrikalari eta rollerrek

26. Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia-aren ibilbidearen moldaketak Basaundi, Oria eta Zumaburu auzoetan izango du eragina. Ipar martxalariak, aldiz, ohiko bidea egingo dute. Izen ematea lasterketa egunera arte, hilaren 29ra arte, egongo da zabalik

### Txintxarri

Adi patinatzaile eta korrikalari, 26. Lasarte-Oria Bai! Krosak azken astean aldaketa esanguratsu bat izan baitu. Gipuzkoako Foru Aldundiak N-1 errepide gainean dagoen Allerruko zubia eraitsiko du egunotan eta ibilbidea moldatu behar izan dute antolatzaileek.

Eguneko egitarauak ez du aldaketarik izango, ordea. Parte hartzaile guztiei agurra dantzatut ostean, hasiko da lehia. 10:28an, patinatzaileak irteera marra ziztu bizian utziko dute atzean. Bi minutu geroago korrikalarien txanda izango da.

Basaundi, Oria eta Zumaburu auzoetan izango du (mapan ikusgai) eragina ibilbidearen aldaketak. Geltoki kaleko zuzengunetik atera eta ohiko bideari ekingo diote Basaundi auzoraino.

Lasterketako lehiakideek industria gunera sartu beharrean, errepidetik jarraituko dute Oriako elizaraino eta bertan sartuko dira lantegien eremura. Zirkuitu ibilbideko etxe parean dagoen gasolindegia atzetik Txartel pareko industria gunera sartuko dira eta Txartel hoteleko biribilgunean Kale Nagusiko pabiloietako errepidearekin egingo dute bat. Zu-

maburuko elizara iristean, ezkerretara hartu eta Zumaburu kaletik barrena San Miguel okindegira iritsiko dira. Ola Kaletik Telleri kalera egingo dute gero ibai aldera egiteko.

Hipodromo etorbideko dorrearen aurretik igarotzean, Zubieta aldera hartuko dute. Hortik aurrera, ohiko ibilbideari egingo diote aurre parte hartzaileek eta Okendo plaza sarreran helmugara iritsiko dira.

Moldaketa egin arren, ohi bezala guztira 10 kilometro izango dira bi modalitate horietako kideek egin beharrekoak.

Irteera puntutik abiatzen azkenak ipar martxalariak izango dira. Bost kilometroko bidea egingo dute. Ohi bezala, Kale Nagusitik ibai aldera egingo dute Ama Brigitarren komentu parean eta ibaiko bidegorria hartuko dute. Bertan bat egingo dute korrikalari eta patinatzaileekin. Ibaiertza jarraituko dute Michelin 2 gunea igaro eta Geltoki kalera eginez. Azken zuzengune horrek Okendo plazara eramango ditu.

### Izen emate eta dortsalak

Izen ematea lasterketa egunera arte irekita egongo da. Bi modu dituzte oraindik euren dortsala eskuratu ez dutenek inskripzioa egiteko. Batetik, Ostadar SKTren webgunea, eta, bestetik presentziala.

Azken hori gaur, hilak 27, Manuel Lekuona Kultur Etxeko 1. solairuan egin daiteke, 17:00etatik 20:00etara. Bihar, hilaren 28an berriz, Michelin kirol guneko pilotalekuan izango da, 11:00etatik 14:00etara edota 17:00etatik 19:30era. Azken aukera krosa hasi aurretik izango dute parte hartu nahi duten pertsonak, hilaren 29an bertan, 09:00etatik 10:00etara kirol gunean.

Dortsala eskuratzeagatik 15 euro ordaindu beharko dituzte kirol elkarteko bazkide ez direnek, eta badirenek, 10 euro. Tramite hori azken egunerako uzten dutenek, aldiz, 23 euro ordaindu beharko dituzte.

Kamiseta teknikoa ere izango dute parte hartzaile guztiek eta horrela egokituz gero, saria (herriko taberna, jatetxe, okindegi eta komertzioek eskainitako opariak; Reala, Bera Bera Super Amara eta GBC ikusteko sarrerak; eta abar). Horiek lasterketa bezperan edota egunean bertan jaso behar dira frontoian, arestian zehaztutako ordutegian.

Antolatzailea:



www.ostadarskt.eus

astola, Oriarte BHI.

BIKAIN



## Zorte on korrikalariari!

Gure produktuekin 8 sorta zozketatuko ditugu korrikalari guztien artean!

**Patxi Larrañaga**  
**Ana Iparraguirre**  
**Naroa**



Kale Nagusia 39 Lasarte-Oria  
Tel. 943-37 26 68 - Faxe: 943-37 07 37



Korrika Festako haur eta gazteek pozik egiten dute lasterka. TXINTXARRI

## Krosaren harrobia, erdiguneko kaleetan

Nagusien krosa amaitu ostean, herriko lasterketak etorkizuna duela erakutsiko dute 2018 eta 2008 urte artean jaiotako arteko haur eta nerabeek. Maila eta txanda ezberdinetan adinaren arabera ibilbidea egingo dute 21. Korrika Festan

### Txintxarri

Helduen lasterketaren ostean, 21. Korrika Festaren txanda izango da. Senide, lagun eta ezagunak Geltoki eta Uistin kalean bilduko dira haur zein nerabeei euren berotasuna emateko. Adinaren arabera ibilbide ezberdinak osatu beharko dituzte partaideek.

Lehenengo lasterketetan nerabeak izango dira lehian. 2008-09an jaiotako kadeteak lehenik (12:15ean) eta hamar minutu geroago, 2010 eta 2011 urteetako

infantilak. Bi maila horietako korrikalariek 1.200 metroko bidea egingo dute; Uistin eta Geltoki kaleko zirkuituari bi itzulu emanez.

Ostean, 12:35ak aldera, lehenengo krosean parte hartzen duten haurrek urduritasun eta ilusioz beteko dute Geltoki kaleko zuzengunea. Txanda ezberdinetan, 2018. urtean jaiotako txikiek euren indar guztiak 100 metro egingo dituzte.


2016-17 urteetan jaiotako haurren lasterketak 12:45ean hasiko

dira. Horiek 50 metro gehiagori aurre egin beharko diete, hau da, 150 metroko bideari.

Koskortuago dauden 2014-15 urteko gaztetxoek (12:55ean) 400 metroko bidea egingo dute Uistin eta Geltoki kaletik barrena eta 13:00ak aldera, 2012-13 urteetan jaiotakoek emango diote amaiera Korrika festari. Horiek 800 metro egingo dituzte.

### Izen ematea

Hilaren 29an, korrikalari txiki eta euren gurasoek kontuan izan



BIKAIN

beharreko ohar bat eman dute Ostadar SKTko antolatzaileek; haurrek lasterketa hasi baino 15 minutu lehenago egon beharko dute dagokien harrera guneetan (ikus irudia). Adinaren arabera bi gune ezberdin izango dira: 2018 eta 2016 urte artean jaiotako txikiak Michelin gunean eta gainerakoak Mercero plazan. Guztiak Okendo plazan elkartuko dira euren lasterketa amaitzerakoan.

Eta izena eman ez duten gazte eta haurrei azken ordura arte ez itxarroteko gomendioa ere eman

dieta antolatzaileek. Horretarako, gaur inskripzio gunea irekia egongo da, hilak 27, Manuel Lekuona Kultur Etxean, 17:00etatik 20:00etara; bihar, Michelin kirol guneko pilotalekuan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era. Azken aukera, igandean bertan izango da, 09:00etatik 10:00etara, kirol gunean.

Haur bakoitzak 7 euro ordaindu behar ditu. Trukean kamiseta tekniko bana, eta, lasterketa amaitzean, bestelako opariak jasoko dituzte.

Aukera beganoa dugu!

**TABERNA**

# Buenetxea

Ondo pasa eta ZATOZ KROSEAN!

Lasarte-Oria Bai! Krosarekin bat!

**ZATOZ GURE GOSARI ETA PINTXOAK DASTATZERA!**

- OGITARTEKOAK • HANBURGESAK
- SANDWICH-AK
- ENTSALADAK • BAKAILAO
- TXULETA ...
- PRIMERAKO GOSARIAK: Kafea, zukuak, tostadak, opilak
- TXOKOLATEA TXURROEKIN
- SALDA • RAZIOAK • PINTXOAK

Pablo Mutiozabal 2, Lasarte-Oria ! Tel. 943-36 95 08

**I O S U**

## Serigrafia Tanpografia DTF

LASARTE-ORIA BAI!! Krosarekin bat!

Kamiseta inprimategia | Pegatinak | Iragarki nahiz industria sarigrafia | laneko arropak | enpresa opariak | boligrafoak | txiskeroak | laser merkaketak...

**serigrafiaiosu.com**

Ugaldea polig. 36 USURBIL Tel: 943-37 19 54

# Tokiko merkataritza ere ongi tratatzea helburu

Krosaren egunean Tratu On Bat marka sustatuko dute Ostadar SKTk eta Lasarte-Oriako Udalak: partaideen artean 2.000 poltsa banatu eta erakundeak 2.420 euro emango ditu lasterketa aurrera eramaten laguntzeko. Bestalde, Aterpeako bonuak izango dira sariak

## Txintxarri

Aurten ere akordioa egin dute Ostadar SKTk eta Lasarte-Oriako Udalak, 26. Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia egunean Tratu On Bat marka sustatzeko. Gauzak horrela, kirol probaren ostean 2.000 poltsa banatuko dituzte partaideen artean eta erakundeak 2.420 euro emango dizkio kirol elkarteari, lasterketa aurrera eramaten laguntzeko. Izan ere, kirola bultzatzea ez ezik, probaren helburu ere bada tokiko ekonomia hauspotzea, udaleko nahiz Ostadarreko ordezkariak azpimarratu dutenez. Udaletxean izan dira Agustin Valdivia alkatea, Sozioekonomia saileko buru Nuria Fernandez eta klub horretako kide Aitor Azkonobieta eta Bego Toquero.

Ostadarreko kideentzat "oso garrantzitsua" da lasterketak herrian sortzen duen giroa, "udalerriko ekonomia bultzatzen duelako". Aurten ere bermatuta egongo da hori, partaide lasarteoriatarak "asko" izango direlako. "Gora egin dutenak, batez ere, korrika egingo duten emakumeak dira". Udalak eta Ostadarrek gogorarazi dute izen ematea irekita dagoela, kirol elkartearen webgunean bertan edota Manuel Lekuona Kultur Etxeko 1. solairuan. Bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta ez direnek, 15 euro. Lasterketaren egunean bertan apuntatu nahi dutenek, kasua edozein izanik ere, 23 euro pagatu beharko dituzte.

## Aterpeako bonuak, sari

Ostadarrek iragarri du krosako proba desberdinetako lehen sailkatuek 1.200 euro eramango dituztela etxera saritan. 2019ko krosan ekin zioten garaikurrak Aterpea merkatarien elkarteak kide diren komertzioetan erabiltzeko erosketa bonuekin ordezkatzeari eta gauza bera egingo dute aurten: korrika

zein ipar martxa egin edo patinatu, kategoria eta modalitate bakoitzeko aurreneko hiru sailkatuek 60, 40 eta 20 euroko tiketak poltsikoratuko dituzte, hurrenez hurren. Gauzak horrela, duela lau urte arte kopak-eta erosteko erabiltzen zuten dirua tokiko merkataritza eta ekonomia bultzatzera bideratzen dute orain.

"Lasterketaren filosofiarekin bat egiten duen erabakia dela iruditzen zaigu, herriarekin eta herriarentzat hartutakoa", nabarmendu dute Ostadarreko kideek. "Lasarte-Oriako herriari egiten diogun ekarpen modura ulertzen dugu krosa eta bide beretik doa garaikurren dirua Aterpeako dendetan erosteko erabiltzearena". Bidenabar, begi onez hartu du erabaki hori aipatu merkatarien elkarteak eta esker oneko hitzak izan ditu lasterketa antolatzen dutenentzat: "Urriko azken igandea berezia da gure herrian eta hori krosari eta Ostadarri zor diogu. Gure ikuspegitik, beste urrats bat egitea da erosketa bonuena, tokian tokiko merkataritza sustatu eta gure egiteko moduarekin bat datorrena".

## Babesleei eskertza

Bukatzeke, Ostadar SKTko kideek eskerrak eman dizkiete egun handi hori aurrera eramaten laguntzen dieten guztiei, eta, bereziki, babesle eta kolaboratzaileei: Etxezarreta harategia, Avenida taberna-jatetxea, Bertako Igogailuak, Factory logistika, Frutas Ruiz fruta denda, Ventanas San Miguel, Lasarte-Oriako Udala eta Isaac Farre argazkilaria.

Laguntzaileen lana aitortzeari lotuta, krosaren antolatzaileek gogorarazi dute aurtengo omen-duak boluntarioak izango direla. 150 bat lagun behar izaten dituzte urtero zeregin guztiak aurrera eraman ahal izateko.



Ezker-eskuin: Azkonobieta, Toquero, Valdivia eta Fernandez. TXINTXARRI

# Zatoz Lasarte - Oriara doan aterako zaizu!

gutxieneko erosketa

# 10€

BILA EZAZU BEREIZGARRI HAU



## DOAN PARKING



MURIAS LOIDIBARREN



# Euskaltzaleak bildu eta saretzeko ospakizuna

Azaroaren 11n Euskal Jaia ospatuko du Ttakun Kultur Elkarteak herriko zenbait eragilerek in elkarlanean eta Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak diruz lagunduta. Parte hartzea irekita dagoela adierazi dute jai giroaz gozatu eta euskal kulturara hurbildu nahi dutenentzat

## Txintxarri

Aurtengoa 2023. urtea da, eta, beste ezaugarri batzuen artean, Euskararen Maratoirik edo Euskaraldirik gabekoa da. Edonola ere, Ttakun Kultur Elkarteak, herriko zenbait eragilerek in elkarlanean eta Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak diruz lagunduta, herriko euskaltzaleak biltzeko eta saretzeko ospakizuna aurrera eramango du azaroaren 11n, larunbatarekin, Okendo plazan: Euskal Jaia. "Urrian antolatu ohi dugu normalean, baina beste ekitaldi batzuk kontuan izanda atzeratzeko erabakia hartu dugu", azaldu dute Ttakun KEko kideek. "Salbuespena izatea nahiko genuke eta data bat finkatu, urriko hirugarren asteburua, egitasmoa sendotze aldera".

Euskal kulturaren oinarritutako jaia izango da azaroaren 11koa, euskararen erabilera eta euskaltzaletasuna sustatzea asmo duena. Horrekin batera, Ttakun KEk



Mari Karmen Ormazabal eta Jon Antxordoki, Okendo plazan. TXINTXARRI

eta udalak martxan dituzten egitasmoei (Plaza Dantza, Solaskide, jantzi tradizionalen ikastaroa...) ikusgarritasuna eman nahi diete eta egitarauan txertatu dituzte (arrosa koloreko zatiduran kontsulta dezakezue,

osorik). Egun horretako ekimenen artean Lasarte-Oriako artisauek eta ekoizleen azoka izango dela azpimarratu dute, euren ekoizpenak ikusarazteaz gain salerosketa harremanetan ere euskara bultzatzeko. Horretara-

## Euskaraldia "eraginkorra" dela ondorioztatu du azken ikerketak

Euskaraldiaren hirugarren aldiaren ikerketa lanaren ondorioak jakinarazi ditu egitasmoaren koordinazio mahaiak

## Txintxarri

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra egin zen azken Euskaraldia, hirugarren aldia, eta horrek ere, aurrekoek bezala, ikerketa lan sakona ekarri du. Bertan ondorioztatutako berri eman berri du Euskaraldiko koordinazio mahaiak. Lehen ediziotik izan da garrantzitsua Euskaraldiko koordinazio mahaiarentzat Euskaraldiaren eragina neurtzea, bai urte jakinari dagokiona, eta baita hasieratik hona gizartearen egin duen ekarpena ere; Euskaraldiak, ariketa sozial berritzaile

izanik, gizartearen eragitea baitu helburu.

## Datu zaparrada

Norbanakoetan zein, ariguneen bitartez, entitateetan Euskaraldiak izan duen eragina aztertu dute, eta nabarmendu, ariketa gizartearen "normalizatu, finkatu eta egonkortu zela" sentitzen zutela, eta hala baieztatu duela azken ikerketak: "Euskaraldia ezaguna da gizartearen, rolak hizkuntza jokarekin lotzen dira eta ariguneen funtzionamendua ondo ulertu da, orohar". Horrek dakar, besteak

beste, parte hartzaileengan Euskaraldiak duen eragina areagotzea urtetik urtera: "2022an ariketan parte hartu zutenen bi herenek, intentsitate ezberdinetan bada ere, hizkuntza ohiturak aldatu dituzte". Hori, bereziki azpimarratzeko datua da Euskaraldiko koordinazio mahaiako kideen iritziz.

Aurreko aldiaren ikerketek bezala, 2022koak ere bi zati izan zituen: lehendabizikoan, Euskaraldian izena emandako norbanakoen eta entitateen unibertso osoari buruzko datuak aztertu dira, izen ematearen datu kuantitatiboak ezagutzeko. Bigarrenetan, berriz, lagin bidezko inkestetatik eta informazio kualitatiboa jasotzeko teknikak erabiliz jaso da informazioa, ekimenaren eraginaren azterketa sakonagoa egiteko.

Datuak, xehetasunez, [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)-en kontsulta daitezke.

## Azaroaren 11rako egitaraua

Ohi bezala, antolatzaileek jardueraz betetako programa antolatu dute egun osoarako. Herritarrak horietan parte hartzea animatu dituzte.

- **09:30ean, Okendo plaza eta inguruetan barrena**, diana egingo du herriko txistularien taldeak.
- **10:00etatik 13:00etara, Okendon**, herrikoak diren artisauek eta ekoizleen produktuen azoka aurrera eramango dute. Euskararen erabilera bermatuta egongo dela azpimarratu dute antolatzaileek.
- **12:00etan, Okendon**, Plaza Dantza egitasmoa lagunek muxiko eta euskal dantzen saioa egingo dute.
- **13:00etan, Okendotik irtenda**, Ttiriki Ttarrakako trikitilariak kalejira egingo dute.
- **14:00etan, Okendon**, herri bazkaria, 80-90 pertsonentzat. Antolakuntzak mahai, aulki eta edariak jarriko ditu, eta, jatekoa, norberaren kontu.
- **16:00etatik aurrera, Okendon**, jantzi tradizionalen desfilea.
- **17:30ean, Jalgi kafe antzokian**, bakarriketa bat egingo du Bea Egizabal umoristak, Solaskide euskaraz hitz egiteko egitasmoa ardatz hartuta.
- **18:30etatik aurrera, Jalgitik abiatuta**, pintxo potea izango dute herritarrak, euskal giro ederrarekin. Oaintxe in deul! txarangako lagunek animatuko dute ekitaldia.

ko, merkatariek hizkuntza horretan artatuko dituzte bezeroak.

Herri bazkaria izango da beste jardueraren nabarmen bat, Okendon, 14:00etan. Mahai, aulki eta edariak antolakuntzak jarriko ditu eta jatekoa norberak eraman beharko du.

Ttakun KEko lehendakari Mari Karmen Ormazabal eta udaleko Euskara saileko buru Jon Antxordokik eman dute aurtengo Euskal Jaiaren berri. Biek ala biek nabarmendu dute euskal

kulturara hurbildu nahi duen guztiek ekimenetan parte hartu eta jai giroaz goza dezaketela. Halaber, antolatutako jardueretara baserritar jantzita etortzera animatu dituzte herritarrak.

## LASARTE-ORIAKO ARTISAU ETA EKOIZLEEN AZOKA IZANGO DA JARDUERETAKO BAT



TXINTXARRI

## Euskararen aldeko argazkia

Gaur, hilak 27, talde argazki bat aterako dute Okendo plazan, 18:30ean, hau salatzen: azkenaldian euskararen sustapen eta normalizazioaren aldeko neurrien aurkako sententzia judicialak ugaritu izana. Herritar oro dago gonbidatuta. Gero eta eragile gehiago bat egiten ari dira, besteak beste, Ttakun Kultur Elkarteak. Azaroaren 4an Bilbon izango den manifestaziora joateko deia ere egin dute.





Ikus-entzulez lepo beteta egin diote harrera Borobilean elkartearen lehen hitzorduari. TXINTXARRI

# Harrera borobila egin diote lehen borobilarri

"Gizarteko gai zailenei buruz" hausnartu eta horiez hitz egiteko aukera izan dute, lasarteoriatarrek, Joseba Sarrionandia idazlearekin eta Iñaki Petxarroman kazetariarekin; bi horiek izan dira Borobilean elkarteak bere lehen saiora deitu dituen gonbidatuak.

## Txintxarri

Lasarte-Orian sortu berri den Borobilean elkarteak egin du estreinako saioa, eta ez edonolakoa; Joseba Sarrionandia idazle eta pentsalaria gonbidatu dute, komunikazioaz hitz egiteko. Aurreikusitako zitekeen moduan, harrera bikaina izan du hitzorduak; aulki bakar bat ere ez da hutsik geratu. Areago, izan dira eserlekutzat lurra hartu behar izan duten entzule apur batzuk. Aulkiek, gainera, borobila osatu dute; berariaz kokatu dituzte horrela elkarteko kideek, ezin baitzen beste modu batera. Horrek bete du elkartearen helburuetako bat, hau da, aretoan bildu direnak "parez pare elkar ikusi eta begiratzea".

Saioari hasiera emateko, ekimeneko kideetako batek hartu du hitza, Ixiar Arteagak, eta elkartearen aurkezpen labur bat egin ostean, bi gonbidatuak aurkeztu ditu: Iñaki Petxarroman eta Joseba Sarrionandia. Urte luzez kazetari lanetan ari den kazetari lasarteoriatar gisa aurkeztu du lehena, eta hiru hamarkada pasatxo herbestean

egin dituen idazle "irakurri, ezagun eta maitatu" bezala, bigarrena. Lan horiek amaituta, euren eman die hitza; zketaria izan da hitz egiten lehena.

Gaiari eutsi aurretik, zoriondu egin du elkarteak, uste baitu ekimena "ederra" dela, eta Sarrionandiaz hitz egin du jarraian. Eman ditu idazlearen gaineko hainbat datu, besteak beste, oso gustuko izan duela bere liburuak irakurtzea, "batez ere gaztetan". Eta Martuteneko espetxetik ihes eginda, herbestean emandako urteez ere mintzatu da; hari horri tiraka kontatu du Habanara egindako lan-bidaia batean ezagutu zutela elkar. "Kultura baten parte, sinbolo handi" gisa definitu du protagonista, eta hitzartze hori amaituta, hari eman dio hitza.

## Galdera eta erantzunak

Sarrionandiak hitza hartu orduko, aipatu du "oso garrantzitsua" dela komunikazioa, eta hori, "lagunartekotik" hasten dela. Eta, jarraian jakinarazi die ikus-entzuleei ez dela gai bati buruzko hitzaldi bat ema-

tea, baizik eta "gure gizarteko gai zailenei buruzko galderak" planteatzera. Eta helburu horrekin, lehena zuzendu die bertaratu direnek hausnar zezaten eta, noski, elkarrizketa bat sortu asmoz. Nazioa zer den galdegin du, eta izotza apurtu eta elkarrizketa bat sortu asmoz, Petxarromani eman dio erantzuteko lehen txanda. Berehala etorri da kazetariaren hausnarketa. Azaldu du, berak hitz hori hizkuntzarekin lotzen duela, euskararekin. Horren ostean partekatu dute zenbait ikus-entzulek euren gogoeta; askotariakoak izan dira, horien artean, izan da Petxarromanenarekin bat egin duenik, edota horren aurka agertu denik, eta baita emozioekin lotura egin duenik, ere. Elkarrizketak bere bidea egin ahala, beste hainbat kontzeptuz hausnartzeko parada ere izan dute, hala nola, demokraziaz.

Hitzordua amaitu aurretik, pago zuhaixka bana oparitu diete bi gonbidatuei, eta mokatutxo bat egin dute etxeratu haurretik, denek elkarrekin.



NEURE KABUZ

JULEN BASTERRA

## Heriotza onartzea

Igaro dira hilabete eta bi aste aita zendu zen egunetik. Ni neu hiltzen naizen egunera arte gogoratuko dudana data horietako bat izango da irailaren 15a. Egun hori, azkena, garrantzitsua izaten da memoriarentzat, beste une eta egun askoren aurretik ipintzen baitu honek, eta agurra modu batekoa edo bestelakoa izan bada, hobeto edo okerrago integratu ohi du norberak maitate duen pertsona horren galera. Gure agurra ederra bezain gogorra izan zela esan dezaket, ospitaleko ohean eman baitzuen aitak bere azken arnasa ama eta ni haren eskuei helduta ginela. Gaur paragrafo hau idazten malgo ugari isuri zaizkidan arren, esker oneko eta bakean naiz aitarekin, onarpen prozesu baten ostean haren heriotza guztiz onartua eta zinez barneratua dudala sentitzearekin batera.

Gauzak honela, aipatu berri dudana azken gai hau da gaurkoan azpimarratzea eta garatzea gustatuko litzaidakeena: heriotzaren onarpenaren gaia. Iruditzen zait, beste gai askorekin gertatu ohi zaigun bezala, teoriarik gauza nahiko sinplea dirudiena konplikatza jotzen dugula, arrazoi ugariengatik, noski. Honela, egiten dugun lehen akatsa, eta agian garrantzitsua, heriotzaz ez hitz egitearena da. Denok hilko garela jakin badakigun arren, hilko ez bagina bezala bizi gara, gauza bat jakitea ez baita gauza bat onartzearen pareko. Heriotzaz ez hitz egiterakoan, gure hezur haragizko gorputz horren hilkortasuna ukatzen dugu eta azken une hori heltzen denean sufrimendua areagotzen. Zer esanik ez dago heriotza bat-batean heltzen den gertuko kasu horietan. Zein zaila den edonorentzat galera hori onartu eta barneratzea. Baina, pixka bat gogoetatuz gero, ez al du heriotzaz ez hitz egiteak berak heriotza bat-bateko bihurtzen? Ez al gara ba denok hilko? Ai... data kontua izango da... goizegi, beranduegi... heriotza ona, heriotza txarra... buruaren bakarrizketa amaigabea...

9 urte nituen 10 urte zituen nire lehengusua zendu zenean. Hau izan zen heriotzarekin izan nuen gertuko lehen harremana. Aitaren kasuan gertatu bezala, gaixotasun luze baten ondorioz etorri zen azken une hori. Ez zen bat-batekoa izan. Goiztiarregia, hori bai. Gertakizun honek agerian utzi dit gerora onarpenaren bidean trabak jartzan dituen beste gai bat: azken une horietan presente ez egotearena, hain zuzen. Txiki-egia nintzelako ez ninduten lehengusua hiltzorian zenean haren ondora eramane, ez nuen agurtu, ez nuen gorpua ikusi eta ozta-ozta joan nintzen hiletara. Ulertzen eta onartzen dut hau zergatik gertatu zen gertatu zen bezala. Baina, gaur hau konpartitzeak beste zentzu bat hartzen du: heriotza gertutik bizi behar dugula gogoratzea, alegia, gertatzen eta mugitzen den guzti hori arnastea, une horietan presente egotea, familia eta lagunekin konpartitzea, gorpuekin eta aldi berean gure hilkortasun horrekin konektatzea...

Azken buruan, hildakoaren espirituari beste mundura igarotzen laguntzea heriotza onartzeko beste puntu funtsezko bat da. Gure presentziarekin, edo heriotzaren kanalizazio eta erritualizazioarekin nahiago bada, hildakoari trantsizio hori egitea errazten diogu. Hortaz, heriotza onartzeko prozesu honetan, joaten ari denari konpainia eta presentzia espiritual hori eskaintzea ezinbestekoa da, hark ere bere heriotza hobeto onar dezan. Espirituaren kontu hauetan sinesten ez dutenak ugariegiak diren arren, sinesmen kontu bat izateaz haratago, diodan hau gertakizun bat dela garbi utzi nahi dut, beste plano batean gertatzen den arren, kontuan hartu beharrekoa dena. Bizitzaren ikasketak etenik ez duen bezala, heriotzaren ikasketak ere ez du etenik. Funtsean, ordea, bada sakoneko irakasgai bat: azken buruan bizitza eta heriotza gauza bera direla onartzea.

# Gai direla eta prest daudela aldarrikatu dute

'Ni prest nago, eta Gipuzkoa?' izena du Atzegiren aurtengo sentsibilizazio kanpainak. Horren bidez aldarrikatu nahi dute adimen desgaitasuna duten pertsonen enplegu publikoetan tokiak eskuratzeko duten eskubidea. Legez, postuen %2 dagozkie

## Txintxarri

Funtzionarioa da Joana Regalado lasarteoriatarra eta gaur egun Gipuzkoako Trafiko Zuzendaritzan lan egiten du. Ordenantzako oposaketako azterketa Madrilen egin zuen eta akats bat bera ere egin gabe gaituratu zuen, hori bai, "ordu asko" sartu eta gero. "Gureak-eko tutorearekin astero bi orduko eskolak izaten nituen, saio indibidualak ere bai, baina, horrez gain, ia edozein tarte baliatzen nuen ikasteko: lanera sartu aurretik eta ondorengo tarteak, trenko bidaiak, asteburuak, jaiegunak...".

Atzegiren aurtengo sentsibilizazio kanpainaren Buruntzaldeko aurkezpenean eman du testigantza hori Regaladok. *Ni prest nago, eta Gipuzkoa?* izena du ekimenak eta helburua da adimen desgaitasuna duten pertsonen enplegu publikoko postuak eskuratzeko duten eskubidea aldarrikatzea. "Gizartearen gehiengoak ez daki legez tokien %2 dagozkiela eta oraindik are gutxiago dira deialdiak egokitzeko ahalegina egin duten erakundeak", azpimarratu du Atzegiren eskualdeko arduradun Aloña Agirrek. Hori dela-eta, egitasmoaren aurkezpena baliatu dute administrazio publikoko entitateak zuzenean interpetatu eta norabide horretan



Atzegiko kide eta familiak, udal ordezkarekin batera, aurkezpenean. TXINTXARRI

urratsak egiten hasi edo jarraitzeko. "Prest gaude alor hori lantze nahi duen edozeini lagundu eta aholkatzeko".

Norabide horretan, Agustin Valdivia alkateak adierazi du "lan asko" dutela egiteke administrazio publikoek, eta udalak Atzegirekin batera landuko duela gaia. Agirrek gehitu du "aukera paregabea" dela enplegu publikoko postuak lortzea adimen desgaitasuna dutenentzat, haien prestutasun eta gaitasuna gizartearen ikusarazten laguntzen baitu.



Joana Regalado lasarteoriatarra Gipuzkoako Trafiko Zuzendaritzan egiten du lan gaur egun, Ordenantza oposaketak Madrilen akatsik gabe gaituratu eta gero.



Billabona 2023-10-21



LOZET ELKARTEA

## Erraldoi artean izan dira

Besamotza elkarteak Villabonako I. Erraldoi Topaketa aurrera eraman zuen hilaren 21ean. Eragile horretako kideek Gipuzkoako nahiz Nafarroako konpartsa eta txarangak gonbidatu zituzten, baita lasarteoriatarren LOZET elkarte eta Oaintxe in deu! ere. Villabonako kaleetan barrena dantzan ibili ziren, eta, eguerdian, indarrak berreskuratze aldera, bazkari herrikoa egin zuten. Eta ez ziren esku hutsik itzuli etxera; izan ere, konpartsa parte hartzaile guztiek txapel bana jaso zuten orroigarri gisa.

## Palestina askatzeko eskatu dute ehunka lasarteoriatarrek

'Palestinako sarraskia gelditu. Israelen inperialismoari stop!' lelopean elkarretaratzea egin dute Okendo plazan

## Txintxarri

Euskal Herriko txoko ugarian bezala, Lasarte-Orian ere elkarrekin ziren Palestinaren aldeko aldarriak ozen zabaltzeko, *Palestinako sarraskia gelditu. Israelen inperialismoari stop!* le-

lopean, hilaren 19an. Tantara-tantaka heldu zen jendea, herrialde hori askatzea eskatu eta Israel bertan egiten ari den "genozidioa" salatzen olatu bat osatu arte.

Hogei bat minutuko elkarretaratzearen ostean manifestu bat

irakurri zuten antolatzaileek. Mezu ugari zabaldu zituzten, besteak beste, hau: "Gure herrietako plazetan bildu eta sarraskia amaitzeko eskatzea baina gauza gehiago egin ditzakegu: gure alea erantsi eta benetako ekarpenak egiteko ordua da, Israelgo estatuaren eta haren interes ekonomikoen aurkako BDS delakoari (Boikot, Desinbertsio eta Zigorren Kanpaina Globalari) atxikita". Amaitzeko, bi egun geroago Donostian egin zuten manifestaziorako deialdia egin zuten.



Jende andana elkarrekin ziren Okendo plazako elkarretaratzean. TXINTXARRI



TXINTXARRI

## Erregio etxeetako topaketa

Gipuzkoako Erregio Etxeen Federazioak deituta, 44 emakumek parte hartu dute bilkuran, herriko Extremadura Etxeko eta Semblante Andaluzeko kideek, besteak beste. Lasarte-Oria ezagutzeaz gain, egitasmoaren helburua emakumeek elkarte horietako

bakoitzan duten parte hartzeari buruz gogoeta partekatua egitea da.

Txu txu tren batean igota ezagutu dituzte herriko toki batzuk, hala nola, udaletxea, Brigitarren komentua, Hipodromoa edota Oria auzoa.



TXINTXARRI

## Andaluziaren erakusleihoa

Semblante Andaluz elkarteak XX. Aste Kulturala aurrera eraman berri du. Datari dagokionez, ohi baino beranduago iritsita ere, aldatu ez dena harrera izan da, Okendoko karpa beterik egon baita ekimen guztietan. Goizeko jarduerak haurrentzat izan dira (jolasak, tailerrak...) eta arratsaldekoak, helduentzat. Kontzertu, dantzaldi eta bestelakoak ez dira falta izan.



TXINTXARRI

## Txema Valles kazetariaren ibilbide profesionalari aitortza

Herritarraren lankide izandako batzuk elkartu eta bapo bazkaldu dute Lavie Gastrobar jatetxean

### Txintxarri

Txema Valles kazetari herritarra ia lau hamarkadaz kontatu du Lasarte-Oriaren egunerokoa, *El Diario Vasco* hedabidean, iazko abendura arte. Hilabete batzuk geroago, 40 urte horietan

lankide izan dituenetako batzuk (*El Diario Vasco*-ko ez gain, TXINTXARRI aldizkariak ere bai) Lavie Gastrobar jatetxean izan ziren hilaren 21ean, bapo bazkaldu bitartean ibilbide luze eta oparo horretako zenbait anek-

dota eta pasadizo gogoratzeko, giro ederrean.

Lavieko sukaldari Javi Mendok gidatutako taldeak prestatutako gutziak dastatu ostean, emozioen eta oparien txanda iritsi zen. Hala, Vallesek argazki eta koaderno bana jaso zituen. Liburuxka horretan dedikatoriak idatzi zituzten bertaratutakoek.

Erretiroa hartuta ere, herriko gertakari esanguratsuetara joaten segitzen du Vallesek, urteotan ondu duen artxibo historikoa elikatzen jarraitzeko asmoz.

## Patriarkatua, fokuan

Bea Egizabal clown lasarteoriarrak bakarriketa saioa egin zuen Virgen de Guadalupe Extremadura Etxean, hilaren 25ean. Ikusmina sortu zuen herritarren artean, lepo bete baitzen aretoa. Ikus-entzuleek barre ederrak egin zituzten umoristaren ateraldiekin eta baita hausnartzeko hainbat gako jaso ere, sistema heteropatriarkalarekin zerikusia dutenak.

## Garagardo festa egin dute Saustatxo elkarteak, giro onean

Kutsu alemaniarreko menuaz eta garagardoaz gozatu dute Saustatxo elkarteak, giro ederrean aurrera eraman duten garagardo festan. 55 lagun bildu dira Uzturre plazako egoitzan: hiru motatako saltxitxak, *churru*-a, patata purea eta txerri ukondoa jan ondoren, sagar *streusel*-arekin biribildu dute otordua.



Saltxitxak prestatzen. TXINTXARRI



Bazkarira joandakoak, Lavie Gastrobar jatetxean. TXINTXARRI

## Mansok Euskadiko Mendi Igoeren Txapelketa eskuratu du

Lasarteoriatarrak Urrakira igotzen amaitu du denboraldia. Azpeitiko proban bigarren izan da eta garaile bere mailan

### Txintxarri

41. Urrakira igoera lehiatu zuten hilaren 22an Azpeitian. 75 ibilgailu aurkeztu ziren probara, horien artean, Aitor Manso herritarrak gidatu zuen Talex M3a. Herritarrak ezin izan zuen bere BRC B49 erabili, baina Talexari esku hartu diola argi utzi zuen lasterketan. Sailkapen orokorreko bigarren amaitu zuen proba Joseba Iraolaren atzetik eta 9. klaseko lehen.

Entrenamendu saio eta bi eremu kronometratuetan Joseba Iraola nagusi izan zen eta erre-



Manso, podiumeko bigarren mailan. A. MANSO

kor berria ezarri zuen lasterketan; 02.45,778ean osatu zituen bizkaitarrak bigarren igoera.

Manso herritarrak bere lasterketa egin zuen eta entrenamendu zein lasterketetan bere

marka ontzea lortu zuen; azkenengo igoeran 03.06,277 egin zuen eta horri esker bigarren sailkatu zen proban.

Txapelketan egindako proba eta postuei esker, Mendiko Euskadiko txapelketako garaikurra jaso du Mansok. "Joseba Iraolak ez du igoera batzuetan lehiatu eta horrek eragina izan du azken emaitzan", onartu du herritarrak.

Gora behera handiko denboraldia izan du Mansok: "Espainiako txapelketako Fitoko proban kolpea hartu genuen eta hurrengo proban Valdorrasen podiumera igo ginen. Gure lehenengo podiuma maila horretako lehiaketa batean. Hurrengo proban motorra hautsi genuen eta Talex M3a alokatu behar izan genuen Euskadiko probak egiteko". Baina ginda ederra jarri ahal izan dio Euskadiko txapelketa eskuratuz.



TXINTXARRI

## Garaipen erraza, etxean

Baloi obala eskutik eskura ibili da berriro ere Michelin kirol gunean. Euskal Ligako II. mailako Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak eta Txingudi RTren arteko hirugarren jardunaldiko neurketa izan zen hilaren 21ean. Beltzek lasai jokatu zuten etxean. Jokalariek ez zuten euren jokoa erakusteko arazorik izan eta erraz gailendu ziren aurkariari, 69-0. Julen Espinosa, Eneko Arbizu, Iñigo Uria eta Gabriel Gavilan herritarrek entsegua egin zuten eta Jokin Belokik ederki gauzatu zituen. Beltzak Errugbi taldeko gainerako mailetan ere emaitza ederrak izan zituzten.



LOTME

## LOTMEko kideak, elur artean

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko (LOTME) 11 kide Pirinioetako Tena bailarara, Huescara bidaiatu zuten hilaren 21ean eta 22an. Helmuga, Garmo Negroko tontorra (3.051 metro). Horretarako, Baños de Panticosatik igo ziren mendizaleak. Goiz esnatzeagatik, bidean egunsenti ederraz gozatu eta zenbat eta gorago, orduan eta elur gehiago. Horrek ez zien eragotzi tontorrera iristea. Atsedean hartu eta jaitsiera arazorik gabe egin zuten. Irteera horretan paisaiak kundituta geratu zirela nabarmendu dute mendi elkarteko kideek.

## Ederki hasi du denboraldia Euskal Ligako taldeak

Ostadar Boleibol saileko Euskal Ligako taldeak Galdakao B garaitu du txapelketako lehen jardunaldian

### Txintxarri

Ostadar SKTk Galdakao B taldearen aurka jokatu zuen Liga hasierako hitzordua, Maialen Chourraut kiroldegian. Denboraldiko lehen neurketan urduritasuna nabari zen kantxan. Hala ere, lehen minutuetako ezinegonan alde batera utzi eta Ostadar SKTko jokalariek argi utzi zuten Galdakao B baino esperientzia gehiago zutela.

Galdakaok gogor aurre egin zien etxeko jokalariei eta Ostadarrek sakean izandako akatsek aukera ugari eman zizkion aurkariari.



Neurketako irudia. TXINTXARRI

Alabaina, talde urdin-beltzak irmo jokatu zuen bai erasoan, baita defentsan ere eta setak eskuratzen

joan zen 3-0eko (25-13, 25-16 eta 25-20) markagailua erdietsi arte.

Euskal Ligako kapitain Ruben Mendozak azaldu digunez, "zelaian sentsazio positiboak izan genituen. Taldea harreran eta defentsan finkotzen doa eta jokatzerakoan zelaian ongi antolatzen gara. Hala ere, sakean egindako hutsak murriztu behar ditugu. Egindako akatsak ez ziren aurkaria estutu nahi guelako izan, konzentrazio falta egon zelako baizik".

Garaipen horri esker, mailako buru jarri da taldea, baina hasiera besterik ez da eta partidaz partida egingo dute lan.

Eta ez zen hori izan Ostadar Boleibol ataleko poztasun bakarra izan. Gainerako taldeek, infantil Bk izan ezik, garaipeneko puntuak eskuratu zituzten denboraldiko lehen hitzorduetan.

## Markak ontzen hasi dute Liga

Hilaren 21ean, Buruntzaldea IKTo infantil, junior eta absolutuek Neguko Ligari hasiera eman zioten. Lehen hitzordua Ordizian izan zen eta taldeko hemeretzi igerilari izan ziren lehen Majori kiroldegian. Prestatzaileen hitzetan igeriketa erritmoa hartzea falta zaien arren, ederki moldatu ziren taldeko igerilariak eta guztira hemezortzi marka ondu zituzten.



BURUNTZALDEA IKT

## Chourraut, podiumean

Eslalon modalitateko Espainiako txapelketa lehiatu zuten hilaren 21 eta 22an Segre kanalean, La Seu d'Urgell, Lleida. Maila ezberdinetako bakarkako zein taldeko lehiaketak jokatu ziren eta Maialen Chourraut herritarra K1 mailako podiumetan izan zen; bakarka hirugarren postua eta taldeko lehena eskuratu zituen Lasarte-Oriako palistak.



RFEP

# KOMERTZIO TXIKI HERRI HANDI

## LASARTE-ORIA

# GREMIOAK

## BARNE-DISEINUA

 **SUGATE**  
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
  - AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
  - HORMA-ARMAIRUAK
  - MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5  
Lasarte-Oria  
Tel: 943-361 471  
[www.sugatecocinas.com](http://www.sugatecocinas.com)

## ITURGINTZA

 **ELOLA  
ITURGINTZA**

ITURGINTZA | GASA  
BEROKUNTZA | ERREFORMAK  
GREMIOEN KOORDINAZIOA

Galdara, berogailu eta termo ordezkapenak

Tel: 608 76 00 06  
[elolaiturgintza@gmail.com](mailto:elolaiturgintza@gmail.com)  
LASARTE-ORIA

## IGELTSEKITA

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza Orokorra



- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40  
[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com) - [www.uraitz.com](http://www.uraitz.com)  
Hipodromo etorbidea, 10 LASARTE-ORIA

## ELEKTRIZITATEA



- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA  
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21  
600 85 75 86 [www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)  
[tienda.electricidadarregui.com](http://tienda.electricidadarregui.com)

## KRISTALDEGIA ETA LEIHOAK



- Komertzial instalazioak
  - Beira bikoitza
  - Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
  - Ispiluak
  - Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA  
943-37 17 33 • 610 45 93 45  
[www.cristaleriaanorgatxiki.com](http://www.cristaleriaanorgatxiki.com)

31. urteurrena



PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK  
Pertsianak, motorizazioak,  
barandak, toldoak, armairuak,  
eltxo sareak eta gehiago...

 **943-36 64 95**  
[ventanas\\_isu@hotmail.com](mailto:ventanas_isu@hotmail.com)

Kale Nagusia, 46 behea.  
LASARTE-ORIA  
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala  
USURBIL 

ZURE NEGOZIOA IRAGARRI NAHI DUZU HEMEN?  
PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS | 646 82 44 66

## KOMIKIA



## ZORION AGURRAK



**Haritz**  
Astelehenerako hamaiketako ekarriko diguzula esan diguzu, baina, astelehena izanik...gai izango ote zara deposito artetik, Lasarte-Oriara iristeko? Zorionak zure inutitl kuadrillaren partetik!

## ESKUTITZA

## NIRE KEKA UDALARI - G.A.

Kaixo, keka hau helarazi nahi diot udalari. Lehen kultur etxe ondoan bazegoen hozkailu solidario bat baina uda osoan ez da egon. Noiz arte? 300 euro... Horrenbeste behartsu egonik, herrian beharrezkoak dira horrelakoak. Mesedez, ireki itzazue begiak.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 27	GIL
LARUNBATA, 28	GANDARIAS-URIBE
IGANDEA, 29	GANDARIA-URIBE
ASTELEHENA, 30	ACHA-ORBEA
ASTEARTEA, 31	GANDARIAS-URIBE
ASTEAZKENA, 1	GANDARIAS-URIBE
OSTEGUNA, 2	DE ORUE

**Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00**  
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00**  
K. Aizpuru Odriozola: Labumbe Berri 11, Hernani. 943-33 60 77

## 'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com)  
com webgunean eskuragarri.

## TELEFONOAK

## UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

## LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

**Jaio da!**

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

## AZOKA TXIKIA

## ETXEBIZITZA

## SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 089 380 zenbakira.

## LANA

## ESKAITZA

Jornada erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabiitza. Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644 11 61 22.

## ESKARIA

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erieteetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erieteetan zaintza lanak ere

egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68. Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketara...) FP-2 mekanizatua egina dut. Zurbietan bizi naiz. Harremanetarako zenbakia, 602 08 25 83.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zurbietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. Harremanetarako zenbakia, 602 08 25 83.

## BESTELAKOAK

## SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

## AZOKA TXIKIA


Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldi, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

**Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitzez gurekin harremanetan**

[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)  
943-37 14 48  
688 68 35 10

## ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia estreinatuko dugu igandean, hilak 29: goizeko hiruretan, ordu biak izango dira.



txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

**Argitaratzailea**  
Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

**Administraria**  
Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**  
Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

**Publizitatea**  
Iratzi Zatarain.

## Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

## Banatzaileak:

Nikola Iraola, Xuban Urdalleta, Egoitz Epelde, Endika Merchan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

**Informatika zerbitzuak**  
IZT Informatika.

**Publizitatea**  
Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

**Egoitza nagusia**  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

**Inprimategia**  
Zero Multimedia, S.A.  
Lege Gordailua: SS-513/93  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

## OSTIRALA 27

### LASARTE-ORIA Deialdia

Zenbait epaitegik azkenaldian euskararen normalizazio eta sustapena helburu duten neurrien aurka egindako sententziak salatze aldera, ostiral honetan talde argazki bat ateratzera deitu dituzte herritarrek eragile batzuek. **Okendo plaza, 18:30ean.**

### LASARTE-ORIA Dantza

Node, Dab nahiz Ziomara Hormaetxe konpainiek *Non batu dira gure ahotsak* emanaldia eskainiko dute. **Kultur etxea, 20:00etan.**

### LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Hilabeteko azken ostiralero bezala, Euskal presoan

eskubideen aldeko kontzentrazioa deitu du Sarek. **Elizate plaza, 20:00etan.**

### LASARTE-ORIA Jaia

Alemaniko ospakizun herriko ospetsuenetako bat herrira ekarriko du Arrieskalleta elkarteak: Oktroberfest. Saltxitxak, txerri ukondoa eta garagardoa nahi adina izango dute 21:00etan hasiko den afarira animatzen direnek, 22 euroren truke. **Arrieskalleta elkarte, 21:00etan.**

## LARUNBATA 28

### LASARTE-ORIA Musika

Lasartearra elkartearen 50. urteurrena dela eta, Alboka Abesbatzak eta Zero Sette

akordeoi orkestrak kontzertu bateratua emango dute. **Kultur etxea, 19:00etan.**

## IGANDEA 29

### LASARTE-ORIA Zinema

Haurrentzako zinema saioaren barruan, *Richard la cigüeña y la joya perdida* filma proiektatuko duela iragarri du Lasarte-Oriako Udalak. Sarrerek 4 euro balio dute. **Kultur etxea, 17:00etan.**

### LASARTE-ORIA Zinema

Helduentzako zinema saioaren barruan, *Barbie* filma proiektatuko duela iragarri du Lasarte-Oriako Udalak. Sarrerek 6 euro balio dute. **Kultur etxea, 19:30ean.**

## ASTEARTEA 31



### LASARTE-ORIA Ospakizuna

Gau Beltza ospatuko da Zabaleta auzoan; adin guzientzako egitaraua prestatu dute. 18:00etan, aurpegi eta kalabaza margoketa; 18.30ean, Txokolatada eta gaztain jatea; 19.00etan, beldurrezko ibilbidea egingo dute helduagoek; eta, 19.15ean, txikiagoek. Bidetik sorpresak izango dituzte ausartenek. Guztia festa giroan amaituko dute, Ttakun Kultur Elkarteko Faktoriako gazteek pintxo potea eskainiko baitiete. **Basotxo plaza, 18:00etatik aurrera.**

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### OHOREZKO ERREGIONALA

Oiartzun KE C - Ostadar SKT  
Igandea. 16:00. Karla Lekuona, Oiartzunen.

#### GORENGOEN MAILA

Ostadar SKT - Touring KE B  
Larunbata. 18:15. Michelin kirol gunean.

#### ERREGIONALEN I. MAILA

Intxurre KKE - Ostadar SKT  
Larunbata. 15:30. Elorri, Alegian.  
Texas CF - Idiazabal KE  
Igandea. 19:45. Harane, Usurbilen.

#### OHOREZKO JUBENILA

Kostkas Mariaren Bihotza CD - Ostadar SKT  
Larunbata. 17:30. Matigoxotegi, Donostian.

#### JUBENILEN I. MAILA

Texas CF - Billabona KE B  
Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunean.  
Lazkao KE B - Ostadar SKT C  
Larunbata. 18:00. Arizti Handi, Lazkao.  
Ostadar SKT B - San Marcial CD C  
Larunbata. 18:45. Harane, Usurbilen.

#### KADETEEN I. MAILA

Ostadar SKT C - Urnieta CD B  
Larunbata. 18:00. Zubieta Z5, Donostian.  
Texas CF - Ostadar SKT B  
Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.  
Ostadar SKT (neskak) - Urnieta CD  
Larunbata. 15:00. Michelin kirol gunean.

#### INFANTIL HANDI

Urnieta CD - Ostadar SKT  
Larunbata. 12:30. Urnietan.

### INFANTIL TXIKI

Billabona KE - Ostadar SKT  
Larunbata. 09:00. Arratzain, Villabonan.

### INFANTILEN I. MAILA

Ostadar SKT - Orereta Kafea FC  
Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.  
Usurbil FT B - Texas CF  
Igandea. 15:30 Harane, Usurbilen.

### ARETO FUTBOLA

#### I. MAILA

Afantxo FK - Eguzki AF  
Ostirala. 21:45. Pasai Donibane kirol.

#### III. MAILA

Eguzki ISU Leihoak - Anoeta FT  
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

### GAZTEEN MAILA

Eguzki B. Ayesa - Herrikide  
Larunbata. 12:15. Maialen Chourraut kirol.

### KADETE MAILA

Eguzki G. Goxua - Laskorain KE  
Larunbata. 10:55. Maialen Chourraut kirol.

### INFANTIL MAILA

Eguzki Bar Escalerillas - Mondrate CD  
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

### SASKIBALOIA

I. MAILA  
Ostadar SKT - Eguzkitza sag. TAKE  
Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.

#### III. MAILA

Zalburdi Debasket - Ostadar SKT  
Larunbata. 18:00. Debako kiroldegian.

### JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA

Atletico Sn. Sn. Aia - Ostadar SKT  
Larunbata. 10:45. Aiete kir., Donostian.

### KADETE PARTAIDETZA

Ostadar SKT - Easo Basket Urgull  
Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

### INFANTIL ERRENDIMENDU URREA

Luberri Ibaeta IVF - Ostadar SKT  
Igandea. 10:00. Benta Berri kirol., Donostian.

### INFANTIL PARTAIDETZA

Zasteazkena - Ostadar Urdina  
Larunbata. 11:30. Antoniano behea, Zarautzen.  
Antigua Luberrri KE - Ostadar SKT

Igandea. 10:45. Antigua Luberrri BHI, Donostian.

### BOLEIBOLA

#### EUSKAL LIGA

Bera Bera Bultz - Ostadar SKT

Larunbata. 17:30. Pio Baroja kirol., Donostian.

#### EUSKAL LIGA, II. MAILA

Ostadar SKT - CD Univ. De Navarra  
Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

### JUBENIL-SENIOR MAILA

Ostadar SKT (S) - Vendetta M. (S)  
Larunbata. 15:30. Maialen Chourraut kirol.  
Ostadar SKT - Aidean

Igandea. 11:20. Maialen Chourraut kirol.

### INFANTIL MAILA

Ostadar SKT A - Hernani KE 1  
Larunbata. 12:30. Michelin kirol gunean.  
Hernani KE 2 - Ostadar SKT B

Larunbata. 10:00. Hernaniko kiroldegian.

### PILOTA

#### ESKUZ BANAKA, 3. SENIORRA

Hernani 3 - Intza KE  
Larunbata. 11:00. (4. partida) Udaleko pil.,  
Hernanin.

#### ESKUZ BANAKA, 1. INFANTILA

Hernani - Intza KE (Jauregi)  
Ostirala. 19:30 (2. partida). Udaleko pil., Hernanin.

#### ESKUZ BANAKA, 2. INFANTILA

Intza KE (Maiz) - Mundarro  
Larunbata. 16:00 (1. partida). Loidibarren pil.  
Hernani - Intza KE (Lopez)

Larunbata. 16:00 (3. partida). Udaleko pil., Hernanin.

#### ESKUZ BANAKA, 3. INFANTILA

Gazteleku - Intza KE (Lizarraga)  
Larunbata. 16:00 (3. partida). Arrate pil., Andoainen.

### ERRUGBIA

#### EUSKAL LIGA, II. MAILA

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak  
RT - UBR Nerbioi  
Larunbata. 16:35. Michelin kirol gunean.

#### 18 URTEZ AZPIKOA

Getxo RT - Zarautz Beltzak RT  
Larunbata. 18:30. Fadura, Getxo, Bizkaian.

#### 16 URTEZ AZPIKOA

Getxo 2008 - Zarautz Beltzak RT  
Larunbata. 17:00. Fadura, Getxo, Bizkaian.

### IGERIKETA

#### ALEBINEN LIGA

Buruntzaldea IKTko igerilari gazteek  
Alebin Ligari hasiera emango diote.  
Larunbata. 17:00. Maialen Chourraut kirol.

### ATLETISMOA

#### ESPAINIAKO TXAPELKETA

Ostadar SKTko Alex Alkain eta  
Alaia Ramos atletek 20 urtez azpiko  
Klubn Espainiako txapelketan  
lehiatuko dira Super Amara  
BATEkin.

Larunbata. Madril / Durango, Bizkaian.

### JUDO

#### ESPAINIAKO KOPA

LOKEko Haritz Urdangarin  
Absolutu mailako Espainiako A  
Kopan lehiatuko da.

Larunbata. 09:00. Getafe, Madrilen.

#### GIPUZKOAKO TXAPELKETA

LOKEko judokak senior mailako  
Gipuzkoako txapelketan parte  
hartuko dute.

Igandea. 10:00. Aritzatalde kirol., Zarautzen.

### XAKEA

#### GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Juan Rodriguez eta Taulako kide  
Jose Ignacio Echeberria herritarrek  
Superbeterano mailako Gipuzkoako  
txapelketako hirugarren jardunaldia  
jokatuko dute.  
Igandea. 10:30. Errenterian.

### LASTERKETA

#### LASARTE-ORIA BAI! KROSA

Gure herriko kaleak korrikalari,  
patinatzaile eta ipar martxalariez  
beteko dira Lasarte-Oria Bai! Krosean.  
Ostean, etxeko txiki eta gazteek  
Korrika Festaz gozatuko dute.  
Igandea. 10:30. Lasarte-Orian.



www.electricidadarregui.com

 LASARTE-ORIA BAI!!  
animo Kortikalariei

**Argi berriak  
ditugu!  
Udazkenean  
argia  
behar  
dugu!**

**Mahai lanparak**  
LED argi erregulatzailleekin  
Bateria kargarria



**Zutikako  
lanparak**



**Kanpokorako  
lanparak**

Eskatu whatsapp bidez!  
**600 85 75 86**



Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21



errigora

errigora.eus

Nafar hegoaldeko uzta  
euskarari puzka

**10 urte  
bete-bete**

urriak 20 - azaroak 9



**Eskatu  
saskia!**



**GURE ZIRKUA URBILEN  
AZAROAREN  
3,4,5,10,11,12,17,18**

**20 SARREREN ZOZKETA**

Parte hartu Urbilen doako aplikazioan  
zozketaren kupoia aktibatuz.

\*Urriaren 31n jakinaraziko ditugu zozketaren  
irabazleak.

